



9.000 KILO SAHARARENTZAT

laz baino gutxiago bildu arren Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak «oso gustura» azaldu dira emaitzarekin » 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-02-11**

VII URTEA 1.626. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Bertsozale elkarteak eta HITZAK bertso txapelketa antolatu dute

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Helduen bertso eskolak nor baino nor ariko dira 'BertsolarHITZA desafioa'-n

HELBURUA Hiru bertso eskolek jarriko dute abian desafioa «harremanak sendotze aldera»; finala, apirilaren 4an 7



BertsolarHITZA desafioaren aurkezpena egin zuten atzo Ibarako Kultur Etxean. A. IMAZ



I. TERRADILLOS

ANTON KARRERA EZKER BATUA-BERDEAK-EN LEGEBILTZARKIDEA

«Guztiok biziko garen gizartea ezin da orain arte bezala eraiki»

AMEZKETA Besteak beste, «herritarren parte-hartzea handitu behar dela» dio 2

Peio Olanok 15 hilabete barru izango du Espainiako Entzutegi Nazionaleko epaia

LIZARTZA Madrilen epaitu zuten atzo «Regina Otaolari heriotz-mehatxua» egin ziolakoan; herriko «egoera lotsagarria» salatzen baliatu du epaiketa 6

Udalak hauren proposamenak bilduko ditu parkea berritzeko

IKAZTEGIETA Eskaerak jaso eta hurrengo pausoa pleguetan sartzea izango da 5

Ohorezko alkate izendapena kendu diote Francori, 60 urte eta gero

ANOETA «Erabaki berdina har dezaten» animatu ditu Peñagarikanok beste herriak 4

E Elkarrizketa

ANTTON KARRERA > Ezker Batua-Berdeak-en legebiltzarkidea

Politika » Gizartea aldatu, langileei eta ez hainbeste boterea dutenei lagundu, eta herritarren parte-hartzea handitu behar dela dio, Ezker Batuaren zerrendagaiak.

INIGO TERRADILLOS

Ezker Batua-Berdeak alderdiaren legebiltzarkidea eta Gipuzkoako koordinatzailea izan da Antton Karrera (Amezketan, 1942) azken bi legegintzaldietan. Martxoaren Ieko Eusko Legebiltzarreko hauteskondeetarako Ezker Batua-Berdeak alderdiaren Gipuzkoako zerrendan dago, 25. postuan.

Zer da zure alderdiak proposatzen duena?

Ezker Batuak gizarte hau aldatu egin nahi du. Gizarte honekin ez dago konforme, izan ere, hemen, batez ere, laguntzen edo errazten zaie asko dutenari. Gizartea ezkerreko ikuspegi batetik, soilik alda daitezke. Adibidez, orain krisi ekonomikoarekin, nahi eta nahi ez langileen protagonismoa behar da. Gutxi denari lagundu behar zaio. Beste politika bat egin nahi dugu zentzu guztietan. Adibidez, lurzorua legea onartu dagu Legebiltzarrean egon garenean. Proposatzen dena da etxebizitza edukitzea, ez jabetzan, baizik eta alokairuan, hori izatea denon eskubidea, eta administrazioari beharra dagoenean exijitu ahal izatea ahalbidetuko du. Gai sozialetan ere aurrerapausoak eman dira, eta lanpostu berriak sortuko dira zerbitzu soziala hobetzeko, izan ere, hori eskatzen du legeak, eskubide unibertsala izatea osasunarena eta hezkuntzaren bezala.

Ezker Batua alderdiaren lehendakariartzako hautagaia Javier Madrazo da. Zein ezaugarri ditu?

Gure koordinatzaile nagusia da, Gobernuan egon da eta politika hauek aurrera eramaten gehien bultzatu du. Gure adostasun osoa du, erakundean, berak koordinatzaile izateko %90eko babesa izan baitzuen. Gaitasun osoa du postu horretarako.

Azken lau urteak nola baloratzen dituzu?

Legebiltzarrean, esaterako, gauza garrantzitsuak egin dira. Lege arrerakoak onartu dira, baina askotan hori ez da nahikoa, gero aplikatu eta gizarteratu egin behar baita, eta horrek denbora ematen du. Guk daukagun ordezkaritza daukagu, eta horrek mugatu egin gaitu, eta horregatik, oso harro sentitzen gara ordezkaritza horrekin lortu ditugun gauzekin, izan ere, ezkerrekoak deitzen diren erakundeak Gobernuan egon direnean, bai PSE baita EAHK ere, ez zituzten horrelako lege aurrerakoirik atera. Etxebizitzarekin eta



«Denok ondo biziko garen gizarte bat ezin da horrela egin»

gai sozialekin egin dena, esaterako, Estatu mailan inon ez da egin.

Krisiari aurre egiteko zer proposatzen duzue? Zerk bultzatu du?

Gobernuaren baliabide ekonomikoak ez dira behar bezala erabiltzen. Merkatuak erregulatu behar duela gizartea nola eraman esan digute, baina horrek beti porrot egin izan du, egin du, eta egingo du. Izugarritzko zorrak egin dituzte diru asko duten horiek, hau da, bankuek eta kapital finantzierok eta Estatu horiei laguntzen ari da. Hori onartezina da. Gure ustez, Gobernuak berak kudeatuko luke, nek ordaindu beharko lukete gehien, zergei-eta dagokionez, eta ez orain bezala, murrizten ari baitzaie. Gizartean dirua badago, arazoa da nola erabiltzen den, bultzatzen intereserako erabiltzen bai-

ta. Bestalde, orain langabezia etorrri da, eta langileak kalean uzten ari dira; langileekin negoziatu ere egin gabe EREak ari dira aplikatzen, eta hori ez da posible.

Sistema honek porrot egin izan bada, eta egungo krisiaren errudun bada, zergatik ez da lehenago aldatu?

Herriak mugitu, defendatu eta parte hartu behar du. Guztiek esaten dute porrot egin duela. Baina, horrela bada ez gaitzen etxean geratu, atera gaitzen eta eska dezagun aldaketa. Hori gure esku dago. Gizartea mugitzen bada posible da, bestela, berriz ere aprobeztatuko dira diru asko dutenak. Denok ondo biziko garen gizarte bat ezin da horrela egin.

Eztabaida sortzen ari den beste gaia AHT da. Zer iritzi duzue honen inguruan?

Ezker Batua-Berdeak alderdia trenaren alde dago, beharrezkoa bai-

ta, bai pertsonen bai eta merkantzien garraiorako biderik egokiena eta gutxienez kutsatzen duena baita. Baina, egiten ari diren tren horren aurka azaldu gara duen trazatua eta eman nahi dioten erabileraren gatik. Lehen ez zuten aurreikusitako merkantzia garraiatzea, eta hori aldatu egin dute behintzat. Hiru hiriburuak soilik lotzen ditu herriak baztertzuz. Diru ugari kostako da eta ingurugiroa asko kaltetuko du. Beraz, ez da herri honek behar duen tren, eta horregatik gaude aurka.

Hauteskunde hauetarako bi alderdi baliogabetu egin dituzte.

Guk argi dugu erabakitze esku-bidea behar duela gure herriak. Gehiengoak esan dezala zer nahi duen, eta hori onartu behar da. Alderdien Legea ezin da onartu, eta guk leku guztietan egin dugu horren aurka; gure ustez, benetako demokrazia eta justiziaren aurka

dihoa. Ideia batzuek onak edo txarrak diren herritarrek erabaki behar dute.

Euskal gatazka konponbidean jartzeko zer egin behar da?

Hitz egin eta negoziatu egin behar da, eta akordioetara iritsi. Herri honetan indarkeria dago, eta gu horren aurka gaude, indarkeria dagoen bitartean herri honek duen arazoari erantzutea oso zaila izango baita. Indarkeriaren inguruan gauza guztiak kontaminatu egin nahi dituzte. Hau gainditzeko hitz egin behar da, beste herrietan egin duten bezala. Herri honi galdetzea zer nahi duen, edo baduen eskubiderik erabakitzeko irteera demokratikoa da. Hori lortu behar

«Diru asko dutenek zor handiak egin dituzte, eta horiei laguntzen ari dira; hau onartezina da»

«Herritarrek euren iritzia gai askotan ematea beharrezkoa da gizartea aurrera eramateko»

dugu. Batzuentzat, ordea, ideia batzuk ez dira demokratikoak, herriari galdetzea zer nahi duen, esaterako, ez da demokratikoa batzuentzat, eta hori ezin da onartu.

Herritarrei galdetzea, beraz, beharrezkoa da.

Lau urtean behin bozka ematea ondo dago, baina gure iritziz, gizarte hau aurrera eramateko parte-hartzea indartu behar da. Herriarrek euren iritzia gauza askotan ematea behar beharrezkoa. Batzuek esaten dute demokratik direla, baina beraien neurria egingako demokrazia nahi dute, eta guk herriaren neurria egingakoa nahi dugu. Galerazi zuten herri honek zer nahi duen galdetzea, baina dinamika hori, herri galdetketena, aurrera aterako dela uste dut.

Hauteskundeen ostean zer itun posible ikusten duzu?

Hori emaitzen ondorenean egin behar da. Dena den, gure posizioa hor argi dago; guk, beti bezala, mahai gainean edukia eta programa jarriko ditugu, eta horiek aurrera eramateko aukera gehien ikusten den horrekin egingo da, eta ez baldin badago aukerarik ez da egingo akordioirik.

Hauteskundeek egungo egoera asko aldatuko dutela uste al duzu?

Ez dut uste aldaketa handirik egongo denik. Gure gizartea nahikoa finkatua dago. Aldaketa txikiak aldaketa politikoak ekar ditzakete, baina ez zait iruditzen asko aldatuko denik.

Zer esango zenieke herritarrei?

Hitzak garrantzitsuak direla, baina ekintzek aldatzen dutela gizartea. Beraz, bozka ematean, alderdiekin egin dutena begiratzeko esango nieke.

9.000 kilo bildu dituzte Sahararen aldeko janari bilketan

Elkartasuna » Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak «oso gustura» azaldu dira kanpainak izan duen harrerarekin.

INIGO TERRADILLOS

Urtero bezala, abendutik aurrera martxan jarri zuten Euskal Karabana *Piztu Itxaropena* lelopean Sahararen alde. Eskualdean Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi! elkar-teak kudeatu du Sahararen aldeko janari bilketa kanpainan, eta amaitutzat eman ostean, «gustura» azaldu dira izan duen harrerarekin. Denera, ia 9.000 kilo biltzea lortu dute.

10.000 kilo biltzea jarri zuten erronka bezala aurten, eta lortu ez badute ere, «oso balorazio positibo» egiten dute. «Kanpainarekin hasi ginenean, oso poliki zihoala ikusi genuen, eta horregatik 5.000 kilora jeitsi genuen erronka. Azkenean, ordea, pixkanaka kopuru hori gaindituz joan gara, eta 9.000ra iristea lortu dugu; beraz, oso gustura egoteko modukoa da», azaltzen du Eli Eizagirrek Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak.

Janariaz gain, ordea, arropa ugari ere bildu dute elkarteko kideek kanpainak iraun duen tartean; «Goizalde guraso elkar-teak

asko lagundu digu horretan, eta eskertu beharra dago».

Bildutako guztia saharar kanpalekuetarako bidean

Behin kanpaina bukatuta, bildutako guztia pilatu, eta kamioiean kargatzen dute elkarteko kideek. Hain zuzen ere, herenegun egin zuten hori. Tolosaldean bezala, eskualdez eskualde kargatzen joango dira aste honetan zehar janari bilketan bildutakoa. Hala, Euskal Autonomia Erkidego osoan jasotakoarekin larunbatean abiatuko dira kamioiak saharar errefuxiatuen kanpalekuetara. Alacantera (Espainia) iritsiko dira lehendabizi, eta handik Oranerako bidea hartuko dute. Aljeriaren iparraldean kokaturiko hiririk errefuxiatuen kanpalekuetara joango dira.

Eta, azkenik, kanpalekuetara iristean, janari eta material guztia familiaz familia banatzea izango da azken pausoa. «Hau egiteko 2 aste inguru beharko dituzte gutxi gorbehera». Inoiz baino beharrezkoagoa dute janari hori sahararrek, urtetik urtera gutxituz baitoa kanpotik iristen den laguntza».

Bi proiektu buruan

Tolosaldea Sahararekin elkar-teak hainbat proiektu garatu izan ditu errefuxiatuen kanpalekuetan. Une honetan bi proiektu dituzte,



Herenegun gauean aritu ziren janaria kamioietan kargatzen. I. GARCIA

eta horietara bideratuko dute biltzen dutena. «Batetik, gerra garaian zaurituak izan zirenak laguntzeko sortu zen ezinduen zentroaren proiektua daukagu; hemen gaixoen familiako kideak aritzen dira hauek zaintzen, ez baitago erizainik, eta bertara eramango dugu janari bilketan jaso dugun arropa», azaltzen du Eizagirrek.

Bigarren proiektua Ausserden kokatzen da, eta urritasun fisiko edo psikikoa duten haurren zentroa laguntza du helburu. Hurrengo ekimenekin lortutakoa bideratuko dute proiektu honetara.

Parte-hartzaileak eskertuz

Jende askok laguntzen du, era batera edo bestera, janari bilketa kanpainan, eta hauen laguntza ere eskertu nahi dute Sahararen aldeko elkarteko kideek. «Era berezian eskerrak eman nahi dizkiegu

Arriaran gasolindegia, Alkianoeta, Comasa eta Cartonajes Limousin enpresei, euren materiala utzi digutelako kamioia kargatzeko». Horretaz gain, parte hartu duten supermerkatu, udaletxe eta ikastetxe guztiei eskerrak eman nahi dizkie eta baita herritar guztiei ere, «guztien laguntzarik gabe ezinezko izango bailitzateke».

RASDen urteurrena

Bestalde, hilaren 27an izango da Sahararen aldeko hurrengo ekitaldia eskualdean. Egun horretan Saharako Errepublikako Arabiar Demokratikoa (RASD) sortu zeneko urtemuga izango da, eta ondorioz, Tolosako udaletxetik hango bandera zintzilikatuko dute. Elkar-teak eskualdeko gainontzeko udaletxeetan ere zintzilikatzeko deia egingo dute, eta elkarretaratzera ere deituko dute.

Laburrak

Amarozko loteria kobratzeko epeak

TOLOSA » Amarozko loteria partizipazioen itzulketa otsailaren 14ra arte kobratu ahal izango dela partizipazioa erositako establezimenduan bertan jakinarazi dute. Egun horretatik aurrera, itzulketa kobratu ahal izango da asteleheneretan, martxoaren 22ra arte, Amarozko Auzo Elkartearen lokalean bertan (Medikuaren kontsulta ondoan), 18:30etik 19:30ak arte.

Mendi irteera antolatu du Oargi mendi elkar-teak

TOLOSA » Oargi mendi elkar-teak antolatuta Itxerindikoatxa gailurrera (1.137 metro) egun pasa edo irteera egingo dute igande honetan, hilaren 15ean. Gorbean kokaturiko mendia da aipaturikoa. Txango honetara joateko interesa duenak edota informazio gehiago eskuratu nahi duenak 688 69 86 42 telefono zenbakira dei dezake, info@oargi.org helbidera idatzi edota www.oargi.org webgunera jo daiteke.

Zaldunita Bezperako danborradaren entsegua

TOLOSA » Inauterietako Zaldunita bezperako danborradaren hurrengo entsegua gaur izango da, Kultur Etxean, 20:00etan. Bihar ere, ordu eta leku berean izango da entsegua, eta datorren asteartean, hilaren 17an, Gorosabelen izango da entsegua, 20:00etan. Bestalde, Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan izena emateko epea etzi, hau da, ostiral honetan amaituko da.

Edurka pabilioian lapurtzen saiatu dira berriro

Anoeta » Herenegun gauean gertatu zen; Txolarre Irratiaren atea txikitu zuten; 2006tik jasan duten seigarren eraso da.

ERREDAKZIOA

Anoetako Edurka pabilioian lapurreta egitera sartzen saiatu direla berriro salatu dute. Herenegun gauean, 23.30ak aldera gertatu zen ekintza. Kasu honetan, Txolarre Irratiaren atariko atea txikitu eta musika taldeek duten lokal batean sartzen saiatu ziren, baina bertako kideek adierazi bezala, «zorionez, ez dute ezer eraman».

Gertaera honen aurrean, Edurka Pabilioian egun egoitza duten Txolarre Irratiak, Anoetako Gaztetxeak eta musika taldeek adierazi dutenaren arabera, «beste behin ere salatu nahi dugu aski dela eten-



Txolarre irratiara doan atea txikitu zuten erasotzaileek. HITZA

gabeko eraso hauekin. Pakean utz gaitzatelana lanean».

Izan ere, ez da lapurreta egitera Edurka pabilioira sartzen diren lehendabiziko aldia. Hain zuzen ere, 2006ko azaroaz geroztik 6 lapurreta-eraso jasan dituzte bertako kideek. 2006an Gaztetxean lapur-

tu zuten, eta lagun bat ere atxilotu zuten lapurreta egotzita; 2008ko otsailan lapurreta saiakera egin zuten, eta 2008ko abenduan dirua lapurtu zuten. Azken eraso artarrean jasan zuten, eta kasu hartan ere diru lapurtu zuten erasotzaileek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Francori ohorezko alkate izendapena kendu dio Udalbatzak 60 urte eta gero

Anoeta » Periko Peñagarikano alkateak eskualdeko beste udalderrei animatzen die erabaki berdina hartu dezaten.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalbatzak egindako azken osoko bilkuran Francisco Franco diktadorea Anoetako ohorezko alkate kargutik kentzea erabaki zuen aho batez mozio baten bitartez. Orain 60 urte, hain justu 1949ko abuztuaren 12an, izendatu zuen ordungo Anoetako Udalbatzak Franco ohorezko alkate eta egungo Udalbatzak izendapen hori balio gabetza erabaki du, «Frankismo garaiko krimenen eta giza eskubideen apurketen erantzule izaniko».

Gipuzkoako alkateek Donostia-ko Aieteko jauregian oporretan zen Francori bisita egin zioten 1949ko abuztuaren 24an, ohorezko alkate izendatzeko udalbatzak hartu zituzten erabakiak eskura emateko. *La Voz de España* egunkariak goiburuan argitara eman bezala, «Gipuzkoak leialtasun sustua adierazi zion Francori». Beraz, Tolosaldeko hainbat udalderrietan oraindik ohorezko alkate izaten jarraitzen du ziurren Francok.

Eguno Anoetako Udalbatzak hainbat argudio zehaztu ditu onartutako mozioan. Horrela,



Udalbatzak mozioa aztertu zueneko osoko bilkura. ANOETAKO UDAL ARTXIBOIA

«Frankismo garaiko biktimei zor zaien begirunea aitortzen dugu, hauei dagokien egia jakiteko eskubidearen aldeko konpromisoa azalduz», esaten da mozioaren testuan. Horretarako ahanzturari aurre egiteko prozesu soziala sortzea «ezinbestekoa» dela irizten diote, «herritarrek jasandako errepresioa dela eta ordain etikoa eta aitortza publikoa jasotzea merezi dutela aldarrikatuz».

Gerra Zibileko zauriei «duintasunez aurre egiteko eta orduko izugarrikeriak gogorazteko beharra azaltzen dugu», dio mozioak, «oroimena identitate sozialeko faktore bilakatzea eskatuz, iraganeko akatsak publikoki aitortuz eta gizarte demokratiko bat sostengatu behar duten balio eta oinarriak berretsiz, ezein ideia edo

proiektu politiko totalitarioren izenean inoiz errepika ez daitezkeen». Bestalde, Frankismo garaiko biktimek «ordain moral eta ekonomikoak jasotzeko duten eskubidea» aldarrikatzen dute.

«Herriarekin zorra»

Anoetako udal artxiboa beste ikerketa batzuk egiten ari zirela konturatu ziren Franco ohorezko alkate izendatua izan zela. Periko Peñagarikano alkateak zehazten duenez, «hori jakitean ezin egona sortu zitzaidan. Hainbeste sufrimendu sortu duen bat Anoetako ohorezko alkatea izatea guztiz desegokia dela deritzogu».

Iaz oroimen historikoaren legea onartu zen eta horren baitan Frankismoaren sinboloak kentzearena. Horrela, Anoetako Udaletik hartu dute Francori ohorezko alkatearen kargua kentzearen erabakia. «Zor bat zegoen herriarekin», azaltzen du Peñagarikano, «zor etikoa eta morala».

Bide batez, Peñagarikano eskualdeko beste hainbat udalderri pauso berdina eman dezaten animatzen die. «Gipuzkoako udalderriek 1949. urtean erabaki hori hartu zuten segurua asko behartuta hartu zuten», azaltzen du Peñagarikano. Seguruenik udalderri askotan ez dakite Franco ohorezko alkate izendatua dutela. Ez da zaila datu hori egiaztatzea, erabakia 1949. urtean hartu baitzuten guztiek.

Anoetan Frankismoaren sinboloak kendu dituzte. Zehazki, 2000. urtean, herri ekimen baten bitartez, babes ofizialeko etxebizitzetan zeuden Falangearen plaka batzuk kendu zituzten. Peñagarikano azaltzen duenez eta berak dakienez, Francori ohorezko alkate kargua kendu dion beste udalderria Gipuzkoan Arrasate izan da. «Aurreko urtean hartu zuten erabakia, oroimen historikoa berreskuratzeko lanean aritzen den elkarre batek eskaera egin eta gero», zehaztu du alkateak.



Kultur asteari amaiera emateko mendi ibilaldia antolatuta zuten. HITZA

Ikastolako III. Kultur Aste «oso positiboa»

ERREDAKZIOA

Amaitu berri den Jesusen Bihotza Ikastolako III. Kultur Asteaz balorazio «oso positiboa» egin dute antolatzaile eta arduradunek. Bide batez, eskerrak eman nahi izan dute era batera edo beste parte hartu duten guztiei, bai antolaketa eta azpiegitura lanetan, baita parte-hartze zuzenean ere.

Ekitaldien artean aipatzekoa da, besteak beste, Akaba Bera-Bera eskubaloitako taldeko jokalarien bisita. LH6tik DBH4ra bitartekoek Akaba Bera-Berako Zulai Agirre, Libe Altuna eta Eider Rubioren egon ahal izan zuten. Ikasleen jakin-mineri erantzuna eman eta Euskal Herrian dagoen eliteko eskubaloitako jokalarien bizipenak ezagutzeko aukera eskaini zuten.

Gai anitzak jorratu ahal izan zituzten, ikasleek agertutako interes handia eta jokalarien azalpen aberatsak esker. Besteak beste, eliteko kirolaren eskakizun eta sariei buruz mintzatu ziren, eta baita emakumezko eta gizonezko kirolen errealitatean dauden desberdin-

tasunei buruz ere (batzuen etabestearen erraztasun edota zailtasunak). Modu berean Benito Mujika zena ere izan zuten gogoan, ikastolako heziketa fisikoko irakasle eta eskubaloitako federazioko kirol-teknikari bezala batzuek eta besteek ezagutzen zutena. Opari bezala, Akaba Bera-Bera taldeko jokalaria guztiek sinaturiko baloia eta kamisetaren pare bat zozketatu zituzten ikasleen artean, eta haien partidetara joateko gonbitea luzatu zieten ikasleei, eskubaloia gertuagotiki ikusi ahal izateko.

Beste ekitaldi interesgarri bat sukaldaritza ikastaroa izan zen. «Oso gustura» aritu ziren eta kutxiak zozketatu zituzten «giro onean», antolatzaileek azaldu dutenez.

Igandean izan zen mendi ibilaldia ere eta egin zuten eguraldia ikusita, parte-hartze handia izan zuten. Ibilaldian bukaeran, izena eman baina ibilbidea egin ez zutenak ere Ikastolan elkartu ziren eta hamaiketako hartu ahal izan zuten «giro onean».

Galarragari epaiketa egingo diote bihar

ERREDAKZIOA

Eneko Galarraga billabonatarrek epaiketa izango du bihar Espainiako Auzitegi Nazionalan, Madrilen. Fiskaltzak ETArekin kolaboratzea leporatzen dio eta 8 urteko espetxe zigorra eskatzen du.

Frantziako Poliziak Galarraga izako urtarilean atxilotu zuen, euroagindua zegoelako bere aurka. Baina euroagindu hori Pauko auzitegian atzerabota zuten hasieran eta asko utzi zuten, aldiz kasinaterra joateko aginduarekin. Hortik hilabetera onartu egin zuten euroagindua eta martxoaren 17an atxilotu zuten Espainiara eramateko asmoz. Poliziak Donibane Lohizunetan atxilotu zuen, polizia-etxe ba-

tean, ohi bezala, sinatzeraz joan zen unean. Gero Espainiaren esku utzi zuten eta Soto del Realen (Madril) preso egon ondoren, Ocaña IIko espetxera (Toledo) eraman zuten. Egun Valdemoran (Madril) dago epaiketa egin bitartean.

Senideek eta lagunek, euroagindua eta atxilotetaren inguruan egindako prentsaurrekoan, euroagindua «inolako funtsik» ez zuela salatu zuten eta «epaiketa fartsa» bertan behera gelditu zedin eskatu zuten. «Enekoaren bizitza erabat publikoa izan da Ipar Euskal Herrian. Semea izan eta familia osatu du, lan egin du eta gizarte segurantzza eta guzti zuten», zehaztu zuten agerraldian.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA ARRASATE-MONDRAGON**
Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA ORDIZIA**
Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 12 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA OÑATI**
Tel.: 943 71 80 09 // cgirate@eteo.mondragon.edu

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata **AULA MAGNA IRUN**
Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAN FAKULTATEA

OTSAILAK 19 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA ESKORITATZA**
Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

G Gutunak

Larunbatean Tolosan AHTri ezetz esango diogu

Larunbat honetan arratseko bostetan, Tolosan jende andana biltzekoa da AHTri ezetz esateko. Adierazgarria gertatzen da, adostasun osoa omen duen proiektu txikitzaile honek geroz eta jende gehiago aurka duela ikustea. Alderdi politiko nagusiek, egun legalak diren guztiek, proiektuaren beharra eta honek gizartean duen babesa aipatzen dute behin eta berri. Eta, bitartean aurka gauden gutxiengo erradikal horren aurka egiten dute indar guztiz. Kontraesanak aierazgarriak dira beraz gure politikari profesionalentzat. Arrazoirik ez duen gutxiengo horri hitza ukatzen zaio, eztabaidarako garaia ez dela esanez. Agian, ez dira konturatzen arrazoirik ez dutenak berriek direla.

Eztabaida beharrezkoa da demokratikoa autodefinitzen den erregimen batean. Eztabaida da azken batean dauden iritziz desberdinak kontrajarri eta adostasunak lortzeko bidea. Adostasunak horren garrantzitsuak diren herri honetan, zuek bake eta demokratikaren zarenok hitzen eta ekintzen bidez burutzen dituzuenak guztiz alderantzizkoak dira.

Geroz eta gehiago gara, eta geroz eta gehiago izango gara, triskantza honen aurka egongo garenak. Mila arrazoi dugu proiektu honen aurka egiteko.

Eta oinarrian, eztabaida bat dugu jorratu beharrekoa: zein da nahi dugun gizarte egitura? Dirua eta boterea aurrejartzen dituen mundu gris eta iluna edota, gizaki zein amalurra beste interes guztien gainetik jartzen dituen gizarte justuago eta koloretzatu bat.

Krisi garaian omen gaude, nahiz eta batzuen irabazi ekonomikoak hazten joan. Ez da normala, geroz eta txiro gehiago dagoen gizarte batetan, geroz eta zorpetze handiagoak jasaten dituen gizarte ba-

tetan, dirua ekonomikoki defizitariora izango den eta ditugun merkantzien arazoari irtenbidea emango ez dion proiektu txikitzaile batetan xahutzea. Uste dut, 8.000 milioi euro direla, Lopez de Gereñuk aurreikusten duen aurrekontua. Zer esanik ez dago hau hazten joango dela proiektuaren lanak aurrera joan ahala. Diru horrekin, Euskal Herriko gizarteak gastu sozialean egundoko aurrerapenak izan ahaliko zituen. Horrela, etxebizitza politikan Madrazojau-nak duen aurrekontua baino 20 bider altuagoa da AHTrentzako aurreikusten den dirua. 20 urtetako etxebizitza politika ordaintzeko adina diru!

Beste 1.000 arrazoi daude, zentzugabekeria hau gelditzeko. Izugarria da, diru publikoa zein era argian bideratzen duten beraien lagunen eskuetara. Gero eta nabariagoa da, alderdi politiko zein politikari eta herriaren arteko banaketa. Herritarren ordezkariak izan arren, ordezkatu eta ordezkarien arteko interes desberdinak argi ikusten dira. Badirudi, lau urtetarako txeke zurizat hartzen dutela beraien erantzunkizun politikoa nahi dutena eta nahi duten bezala egiteko.

Eztabaidaren bidez geldituko dugu AHT izeneko animalia basati hau. Beraz, hemendik larunbatean Tolosara zuzentzeko animatzen zaituztet, eztabaida kalera atera dezagun. Ikusi nahi ez gaituztenak ikusi gaitzaten, entzun nahi ez gaituztenak entzun gaitzaten.

Beraz, larunbatean Tolosan ozen esango dugu, ez dugula proiektu txikitzaile hau nahi. Bitartean guztion lana da, eztabaida lagunarte, familia, lantegi zein ikastetxeetan zabaltzearena, Larunbatean ahalik eta ozenen entzun gaitzaten. Guztion artean geldituko dugu!

Ibai Jimenez.
Ikaslea.



Eskolaren parean parkea egingo dute, eta ahalik eta berdegune gehiena mantenduko dute. N. URBIZU

Parkea haurren eskaeren arabera egingo dute

Ikaztegieta » Udalak euren proposamenak jaso ditu eta hurrengo pausoa hauek pleguetan sartzea izango da.

NEREA URBIZU

Duela urtebete Ikaztegietakoko eskolako ikasleek Udalarik gutun bat bidali zioten. Bertan, parkea handitu nahi zutela adierazten zuten, txikiegia gelditu zitzaie. Udaltxearen erantzuna orduan «ezin da» izan zen. Baina, aurtan bai; aurtan parke berria egingo dute Ikaztegieta, eta eskolaren aurre-aurrean gainera.

Ikasgela bakoitzean jasotako proposamenak jaso dituzte dagoeneko eta etzi batuketa egingo du Udalak, egin beharreko pleguetan islatzeko. «Hilabete batean plegue egin behar ditugu eta hauek datorren bilkuran onartu».

Zapatero Plana deituriko diru laguntza jaso berri du Ikaztegietak eta Udalak haurren eskaera hori kontuan hartu dute: «Eskaria egin zutenek, orain nolako parkea nahi duten galdetu diegu», dio Eneritz Maiz alkateak. «Modu batera guk diseinatu dugu, baldintza batzuk bete behar zituen parke horrek: berdegune ahalik eta gehiena mantendu nahi dugu, bertako

zuhaitzak han gelditzea nahi dugu, eta jolas-parkean elementu handi bat ere izango da».

Parkea ikastetxearen aurrean egingo dute, baina ez da haurrentzat bakarrik izango, irekia baizik. «Eskolatik ateratzen diren haurrek jolas dezakete, baina igandetan, esaterako, bertan izango da, eta seguruenik merenderoak ere izango dira».

Obra hiru enpresari aurkeztu

Udalak hainbat elementu zehaztu ditu, baina ikasleek proposamen interesgarri batzuk ere egin dituzte, hala nola, bizikleten aparkalekua eta mahai teniseko mahaiak. «Hauek, ezin dugu ziurtasun osoz

jarriko dituztela esan, lekuak berak eta diruak baldintzatzen baitu».

Hurrengo pausoa obra hiru enpresari aurkeztea izango da eta aurrekontu interesgarria erabaki beharko dute ondoren. Enpresa honetan gutxienez langabetu batek egingo du lan. Gutxi gorabehera, parkea apirila-maiatza aldera hasiko lirakeke egiten, «beti ere, gauzak ondo badihoaz». Parkea egiteko, berri, hiru bat hilabete beharko dituzte.

Aurretik, eskolaren parean dagoen lurra zertxobait moldatu beharko dute, gorabehera batzuk baititu. Erdiko farola ere kendu beharko dute.



Ezkerreko espaloietik elizainoko espazioa dute parkea egiteko. N. URBIZU

VI. Berria Txapelketan aurrera egingo du Aurrera-Saiazek

ERREDAKZIOA

Joan den igandean VI. Berria Txapelketako norgehiagokak izan zituzten Aurrera-Saiazkoek eta hasiera ezin hobea izan dute, hiru partidak irabazi ondoren. Goizuetan jokatu zuten eta hauek izan ziren emaitzak: 22-3 kadeteetan, 22-6 jubeniletan eta 22-15 nagusietan. Arrasate beraz, txapelketatik kanpo gelditu da honela.

Udaberri Txapelketan Ibarrako hiru partidetatik bi irabazi zituzten, 22-15 seniorren eta baita jube-

nilen mailan, hain zuzen ere. Kadeteek 8-22 galdu zuten Gaztelekuko bikotearen aurka.

Euskadiko Klub Txapelketa Beotibarren jokatu dute asteburuan. Lau norgehiagokatik hiru eskuratu dituzte: 22-3 22 urte azpi-koenean eta Legutioren kontra; 22-17 seniorren mailan eta Adurtzakoen aurka; 18-22 galdu, seniorren mailan Añorgaren kontra. Bukatzeko, ohorezko mailan 22-16 irabazi zuten (Renobales-Galarraga), Danok Lagunak aurka.

hirukide
KALITATEZKO HEZKUNTZA
www.hirukide.org



Otaola alkatezatiak kentzeko 402 sinadura bildu ziren; irudian horren harira eskainitako prentsaurrekoa. N. GARZIA

15 hilabete barru izango du Peio Olanok Entzutegi Nazionaleko epaia

Lizartza » Ustez Regina Otaolari herio-mehatxua egiteagatik epaitu zuten atzo Madrilen lizartzarra; epaiaren zain geratu da.

REBEKA CALVO

Lau orduko epaiketari egin behar izan zion atzo aurre Peio Olanok lizartzarrak. «Epaiketa 10:45ak aldera hasi eta 14:45ak arte-edeoz da bukatu, nahiko gogorra izan da», argitu zuen Olanok.

Entzutegi Nazionalera sartu baino lehen, gainera, han zituen zain Espainako banderakin zeuden 40 bat pertsona. Olanok, hala ere, herriko babesa izan zuen, izan ere, 03:00etan Lizartzatik aterako autobusean hainbat bizilagunen konpainia izan zuen Madrilerako bidaiari eta epaiketan.

Epaiketa luzearen ondotik, hala ere, ez zen argirik atera, «handik bueltatu naiz behintzat», esan zuen atzo erdi txantxetan Olanok. Horiak horrela, lizartzarrak ukatu egin zuen Otaolari herio mehatxurik egin izana defentsak egin galdetetan. Lizartzarraren abogatuak, Iker Sarriegi eta Arantxa Zulueta, absoluzioa eskatu zuten eta Regina Otaolaren abogatuak eta fiskaltzak berearekin jarraitu zuten, hau da, 6 urtetako espetxe zigorra, 24.000 euroko isuna eta 10 urteetan ezin Lizartzara joatearen eskakizunarekin. Epaiaren zain

geratu da orain Olanok, 15 hilabete barru-edo iritsiko dena, nahiz eta hilabete asko pasako diren epai sendoa eduki arte helegiteengatik.

Lizartzako egoera salatu

Olanok esandakoaren arabera «nahiko lasai» dago, «esperantza da azkena galtzen omen dena» esan zuen atzo, eta ondorioz gertatuko denaren zain dago.

Epaiketa hau, hala ere, Lizartzako egoera «lotsagarria» salatzen baliatu nahi du. Izan ere, PP alderdiak du alkatezta, nahiz eta 27 bozka bakarrak eskuratu zituen azken Udal Hauteskundeetan. «Oso garrantzitsua da gogoratzea PPK ez zuela ia bozkarik jaso eta ezker abertzaleak 186 eskuratu zituela», azpimarratu zuen.

Ezker abertzalea gehiengoan den herri honetan, gainera, «ez dugu Regina Otaola eta PPrik nahi» eta ondorioz hauteskuendak eta gutxira sinadura bilketa ere egin zuten Otaola herritik alde egiteko; 402 sinadura lortu zituzten.

Sinadura bilketarekin batera herriak beste hainbat ekimen ere egin izan ditu Regina Otaola alkatezatiak kendu eta kasu honetan Peio Olanori elkartzasuna agertzeko. Batetik, ostiralero elkarretartzea egiten dute herriko plazan Otaola udaletxera joaten dela baliatuz. Azken egunetan, gainera, manifestazioa ere egin dute lizartzarri babesa agertzeko eta atzo bertan, 20:00etan, batzar informa-

tiboa egin zuten bizilagunaren epaiketaren berri emateko.

Zaila izango zaio, hortaz, Lizartzari 2007ko herriko jaien hasiera ahaztea. Orduan izan baitzen Otaolalari salatutako «herio-mehatxua». Olanok esandakoaren arabera bera ere han zen, plazan, beste hainbat herritarrekin batera. Han bildu ziren guztiak, izan ere Udaltzako udaletxean Espainiako bandera jarri behar zuen eta hainbat herritarrek elkarretartzea egin zuten horren aurka agertu eta ikurrinaren alde egiteko.

Ertzain asko zeuden eta oihuak izan baziren ere hori besterik ez zen gertatu, Olanoren hitzetan. Otaolalari lizartzararen aurkako salaketa jarri zuen ondoren, Tolosako komisaldegian. Tolosako Epaitegian epaitu zuten lehenik Olanok, baina honek auzia Entzutegi Nazionalera eramateko eskakizuna egin zuen, bere ustez «terrorismo-arekin» zuelako zerikusia.

Orain hamar hilabete epaitu zuten lehen aldiz lizartzarra Madrilen; Santiago Pedraz epaileak, hala ere, ez zuen bere aurkako neurririk hartu. Orain beste bide batetik jo dute eta Entzutegi Nazionalera da berriz. Esan bezala, hala ere, epaiaren zain geratu da Peio Olanok eta hilabete asko barru izango du epailearen erabakiaren berri.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 695 708 271 edo 638 944 604 telefono zenbakietara.

Gutunak

3 hilabetez ur txarra edaten!

Egunak joan eta egunak etorri, hiru hilabete pasa ditugu ibartzarrok ur txarra edaten.

Ur kontorsioak egiten dituen ur azterketen arabera, ia denbora guzti horretan zehar herriko ura lokaztuta etorri da (beraien arabera ez da guztiz kaltegarria osasunarentzako eta ez zaie herritarrei jakinarazi behar).

10 egun ezberdinetan gutxienez herriko urak mikrobakteriaz kutsatuta egon dira (kasu hauetan ezin daiteke inondik inora ere ur hori edan).

Ura mikrobakteriaz kutsatuta zegoeneko lehen eguna 2008ko azaroak 8 dugu (taratean azaroak 17 eta abenduak 2), baina Udalak herritarroi ez digu honen berri eman otsailaren 28a arte (eskatzetan bandoa jarri ondoren jakin genuen iturriko ura edateko txarra zela), bitartean ur kutsatua edaten egon garelarik.

Hori bai, jakin ezazue guztiok Udaletxeko bulego orokorretan nahiz politikarien geletan hilabeteak daramazkizela botilako ura edaten guztiok kontura.

Udal hautetsi independentistak garenak Udaletik erabat bazter-

tuak eta zokoratuak gauden unetik (Gobernu Batzordetik bidaliak izan gara, Udaltzako goizeko 9etan egiten dira, arloetako ia batzorde gehienak goizetara pasa dituzte...) ez dugu herriko gaiet buruzko lehen mailako informazioa jasotzerik. Baina zenbait herritar uraren gaiarekin kezkatuta etorri zaizkigunez, Ur zerbitzuarekin, Osasungintzarekin, harremanetan jartzea erabaki dugu eta ematen ari garen informazioa horrela dela baieztatzen digute.

Ibarrako Udaltzako ordezkariak herritarren osasunarekiko arduragabeki jokatu dutela begi bistakoa da. Eta Udaltzako Independentistak, 710 herritarren ordezkari izanik, daukagun informazio guztia aditzera eman nahi dizuegu, lotsagarria iruditzen baitzaigu Ibarrako Udaltzako gaitz honetako izan duen jarraera.

Ikusitakoa ikusirik, aurrerantzean zein ziurtasunarekin edan dezakegu iturriko ura?

Oharra: Gai honekin kezkatuta dagoen herritar orori deialdia egiten diogu bihar osteguna, 19:30ean Ibarrako plazan egingo dugun batzar informatibora agertzeko.

Aitor Garmendia eta Edurne Urdanpilleta. Ibarrako Udaltzako Independentisten zinean.

Laburrak

'Reds' filma ikusi ahal izango da gaur 20:30ean

IBARRA ■ Ibarrako Autoeskola Antikapitalistako kideek *Reds* filma eskainiko dute gaur Gaztetxean hamabost egunetik behin egin ohi duten bezala. Oraingoan, hala ere, filma ez da 21:00etan hasiko 20:30ean baizik.

Ura edangarria dela iragarri dute

IBARRA ■ Ibarrako Udaltzako jakitera eman duenez, udal sareko ura berriro edangarria da eta ondorioz, zuzenean edan daiteke jada. Gogoratu behar da zentzu honetan, azken asteetan etxeetako iturriko ura edatea kaltegarria izan dela.

Aiton-amonon eskolak hasiko dira hil honetan

Ibarrak ■ Bilerak Kultur Etxean izango dira hilean behin, astelehenean, eta lehen saioa hilaren 16an izango da.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaltzako eta Uzturpe ikastola aiton-amonon eskola abiarazi dute. Eskola hauek «aitona eta amona, semea eta alaba, eta biloben arteko harremanetaz hitz egiteko bilgune» direla adierazi dute.

Bilera hauetan gai hauek jorratuko dituzte: autoestima -bikotearen eta norberaren ezaugarriak eta mugak-, guraso izatearen gainetik

bikotea indartzearen garrantzia, bakoitzaren rola, lekua... nola kokatu eta ilobak zein beraien gurasoen arteko harremanak. Eskolak Maria Jesus Urangak eta Ana Elosegik zuzenduko dituzte, familia terapeutak eta guraso eskolako zuzendariak direnak, hain zuzen.

10 euroko kuota

Bilerak hilean behin izango dira, astelehenean 15:45etik 17:15era, lehen saioa hilaren 16an izango da eta ekainaren 8an azkena. Kuota 10 eurokoa da.

Izen-emate epea hilaren 13an amaituko da eta Udaltzako Zerbitzuetara jo behar da horretarako, 09:00etatik 13:00etara.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

'BertsolarHITZA Desafioa'

Tolosaldea eta Leitzaldea » Helduen bertso eskolen arteko txapelketa aurkeztu zuten atzokoan Ibarako Kultur Etxean.

ASIER IMAZ

Gipuzkoako Bertsozale Elkarateak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak, elkarlanean bi eskualdeetako helduen bertso eskolen arteko txapelketa aurkeztu zuten atzo Ibarako Kultur Etxean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsoarHITZA Desafioa hiru bertso

eskolek jarriko dute abian. Antolatzaileen esanetan, «txapelketa antolatzen den lehen aldia denez, aurten lasaitasunez hartzea erabaki dugu. Bi eskualdeetako hainbat bertso eskolekin hitz egin dugu baina azkenean Ibarra eta Alegikoarekin hasiko gara. Bi talde hauetaz gain, beste talde bat osatzea ere lortu dugu; Berastegi, Al-

tzo, Abaltzisketa eta Lizartzako bertsolariekin».

Afariaren ostean saioa

Eskualdeetako helduen bertso eskolako txapelketaren lehen jardunaldia martxoaren 6an, ostiralean, jokatuko dute Ibarra, etxeko Pototxotx taldeak Alegiko bertso eskolaren aurka.

Bigarren jardunaldia Altzon jokatuko dute Ibarako Pototxotxek eta herri ezberdinetako bertsolariek. Hirugarren saioa Alegian ospatuko dute martxoaren 27an. Bertan, Alegiakoak eta herri des-

berdinetako bertsolariak ariko dira. Bi talde onenek finala Leitzan jokatuko dute apirilaren 4an, larunbatean.

Hiru kanporaketa saioak elkarrekin jokatu dituzte, afalostean. Bertso afarira joateko zerrendak jarriko dituzte herrietako tabernetan eta edozeinek edukiko du izena emateko aukera. Finala bazkari baten ostean izango da.

Ibarako Pototxotx kideek aurkezpenaren aipatu zuten, helburua ez da txapelketa bera, bertso eskolen artean harremanak sortzea baizik: «Desafioan plazetan

ibili gabeko bertsolariak egongo dira, parte hartzeko baldintzetako bat hori izaki. Saioetan jai giroa edo gertuko giroa nagusituko da; herri-tarren eta lagunen aurrean kantatzean etabar».

Antolatzaileen esanetan, eskualdean helduen bertso eskola gehiago aurkitzen dira, «baina helburu honetarako maila soberan eduki arren, parte hartzea ez dute argi ikusi. Hala eta guztiz ere, hurrengo urtean berriz antolatzen baldin badugu, Leitz, Berastegi, Amezket... desafioan egotea espero dugu».



'Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsoarHITZA Desafioa' aurkeztu zuten atzo Ibarako Kultur Etxean. Alegiako eta Ibarako bertso eskolako kideak bertan izan ziren besteak beste. ASIER IMAZ


hitza info
bertako egunkaria

euskarazko egunkaria etxean jasotzeko,
aukeratu zure eskualdea edo hiria eta egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

gainera zozketak, promozioak, deskontuak eta hainbat abantaila izango dituzu.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldea@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



11°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Villabonako Korrika Batzordearen bilera egingo dute, 19:00tan, balioanitzeko gelan (liburutegi gainean).
■ **Irura.** Udaletxeko batzaraldi aretoan, 19:00etan, Festa Batzordearen bilera.

Hitzaldiak

■ **Villabona.** Mikel Arrastoak, Juanma Balerdik eta Ainhoa Larreak El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari buruzko hitzaldia emango dute, Subijana etxean, 19:30ean.

Erakusketa

■ **Villabona.** El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari buruzko argazki erakusketa Gurean.

Inauteriak

■ **Tolosa.** Zaldunita Bezperako danborradarako entseguak gaur eta bihar Kultur Etxean 20:00etan eta 17an Musika Eskolan Bandarekin batera.
■ **Tolosa.** Karroza eta konpartsestan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Santillana del Mar-era irteera antolatu du hilaren 17rako. Izenematea, elkartean 12 eurotan. Gosauria Quevedan, promozio komertziala eta bazkaria musika, dantza Rocío romeriarekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Segundo Montes komunitatea gertuago

VILLABONA ● Villabona orain gutxi senidetu da El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin, Aiztondoko beste udalerririk batzuz aurretik egin duten bezala. Senidetzearen harira, Segundo Montes komunitateari buruzko erakusketa ikusgai dago egunotan Gurea aretoko sarreran.

17:30etik 20:00etara ikus daiteke eta etzi izango da azken eguna. Bestalde, senidetzearen harira ere, hitzaldi bat izango da, gaur, 19:30ean, Subijana etxean. Mikel Arrastoak, Juanma Balerdi eta Ainhoa Larrea Segundo Montes komunitatearen inguruan ariko dira. I. GARCIA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera paredu

sarrerak eskuratzeko deitu:

943-65 56 95

harpidedun kodea eskura duzula
jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.
Saridunen izenak otsailaren 13ko egunkarian.



harpidedunentzat
TXOKOA hitza